

Thilo Bode Greenpeaceko zuzendaria

# "Gakoa erabaki politikoak hartzen diren tokietan gero eta indar handiagoa izatean egon daiteke"


Beñardo Kortabarría

Elhuyar

Madriren egindako ingurugiro-kazetaritzako kongresuan, besteak beste, Thilo Bodek, Greenpeace erakundeko zuzendariak, hitz egin zuen. *Ingurugiro-erronkak datorren mendean* izenburuko hitzaldia eskaini zuen Greenpeaceko buruak eta pazientzia handiz erantzun zien entzuleen galdera guztiei. Jendaurreko betebeharra bukatu eta gero, ez zuen inolako eragozpenik izan Elhuyarko galderei erantzuteko. Datorren mendeko ingurugiro-erronkak eta puri-purian dauden beste hainbat gai izan zituen hizpide.

## Ingurugiroaren aldeko lanean urte asko daramatzazu, ezer aldatu da azken urteotan?

Ingurugiroari buruzko eztabaida oso gaztea den arren, 30-40 urte besterik ez baititu, arazoak izugarriak dira. Atzera begiratuta ez da zaila konturatzea ingurugiroa babesteko araudietan aldaketa handiak gertatu direla. Ingurugiroaren aldeko lanean hasieran gai jakin eta zehatzei eusten genien, poluzio-arazoak, ibaien egoera eta abar. Gaur egun eztabaida ez da horretara mugatzen, gizartearen eta naturaren arteko harremana nolakoa den eta nolakoa izan behar duen eztabaidatzen ari gara, naturak eskaintzen dizkigun baliabideekin zer egin behar dugun. Hortaz, jautzia handia izan da, gai zehatzetatik gai zail eta erabaki orokorretarako urratsak egin ditugu, ingurugiro-politikak eztabaidatzen dira, ingurugiro-ekonomia, eta gizartea/ingurugiroa oreka nola lortu.



Gaur egun onartua dago ingurugiro-arazo handiak daukela, baina ondorengo urratserako koxkak handiegia izaten jarraitzen du, ez baikara ados jartzen arazoak konpontzeko bideetan.

## Arazo orokor guztien artean, garrantzitsuenak azpimarratzeko gai izango al zinateke?

Mehatxuak asko dira, desertifikazio-prozesua, transgenikoak, berotze globala... eta ez da erraza garrantzitsuena zein den bereiztea. Hala ere, azpimarratzekotan bi aipatuko nituzke. Batetik, erregai fosilen gehiegizko erabilera-aren ondorioz sortu den berotze globala; bestetik, berriz, biodibertsitatearen galera, gizakiak eragiten duen biodi-

bertsitate-galera alegia. Kontuan hartu behar da gizakia-  
ren eraginez biodibertsitate-galeraren abiada ikaragarri  
igo dela. Adituek diotenez, naturak berak sortuko lukee-  
na baino 10.000 bider azkarragoa da galera hori. Lurraren  
berotze globalak ere badu zerikusirik biodibertsitatearen  
galerarekin, eta larria da, eragin diren kalteak konpone-  
zinak baitira, ez dago bueltarik.

### **Eta arazo horien aurrean zer egin daiteke?**

Berehala jarri beharko ginatete lanean, behar diren neu-  
rriak hartuta. Erregai fosil gehiegi erabiltzeak nola bizi  
garen adierazten du, zaborra tonaka sortzen dugu, eta  
dauzkagun baliabideak alferrik galtzen ditugu. Biodiber-  
tsitatearen galera Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko  
desorekaren isla ere bada, gehiegizko ustiaketa-  
ren ondorioz sekulako basoak galtzen ari baitira. Datorren mende-  
an Lurraren gainean 3.000-4.000 milioi biztanle gehiago  
izango gara, gehienak Hegoaldean; beraz, naturarekiko  
borroka handiagoa dugu begi-bistan. Hala ere, ez dago  
etsitzerik.

Arazoak identifikatu ditugunez, irtenbideak emateko  
garaia da. Irtenbideak ez dira falta, somatzen dugu zein-  
tzuk izan daitezkeen, baina ez dira indarrean jartzen.  
Horrek guztiak zerikusi handia du erabaki politikoekin.  
Gizarteko zati batzuek arazoei aurre egin nahi diete, bai-  
na beste muturrean daudenek indar handiagoa dute. Hor-  
taz, gakoa erabaki politikoak hartzen diren tokietan gero  
eta indar handiagoa izatean egon daiteke.

*“gu ez gaude merkatu  
librearen aurka, baina  
ondo aztertu behar da  
horren izenean zer egiten  
den, horren izenean  
ingurugiro-akordio askori  
muzin egiten baitzaie”.*

**Hala ere, mundu gero eta globalago batean bizi gara. Toki jakin batzuetan ingurugiroarekiko erabaki ego-  
kiak eta zuzenak hartuta ere, badirudi erabaki oro-  
korrik ez dagoen bitartean horrek nekez izan deza-  
keela benetako eragina.**

Globalizazioarena fenomeno berria da, eta ez da guztiz  
txarra. Izan ere, gizarte zibilen sustapena bultzatzen  
du, ingurugiro-langileen aukerak ikustea ahalbide-  
tzen du, eztabaidatu eta hitz egiteko aukera ere bai. Bai-  
na globalizazioak bere alde txarrak ere baditu. Mundu  
globalaren ezaugarrietariko bat merkatu librekoa da. Gu ez  
gaude merkatu librearen aurka, baina ondo aztertu behar  
da horren izenean zer egiten den, horren izenean ingu-



Hainbat gai, uraren kudeaketa adibidez, globalizazioaren  
aitzakian ezin da erabaki gabe utzi.

rugiro-akordio askori muzin egiten baitzaie. Merkatu libre-  
a dugun eskubidea da, baina ingurugiroari kalte egiten  
badio aurre egin behar zaio. Garapen jasangarrian oina-  
rritu beharko litzateke.

Merkatuaren liberalizazioak prezioak jaitea dakar, eta  
beste aukera batzuk —energia berriztagarriak adibidez—  
horrela ezin dira lehiatu. Beraz, neurri politikoak behar  
dira. Energia lortzeko iturri tradizionalak erabiltzen badi-  
ra, horrek naturan duen kostua aztertu beharko da eta  
mundu osoan estandarretara iritsi natura ez hondatzeko.  
Bestalde, globalizazioa estatuentzat erabakiak ez hartze-  
ko aitzakia izan da, baina hori ez da egia, beren neurrian  
badutelako zer egin uraren kudeaketan, natur parkeetan,  
edo eta energia-politika definitzean.

### **Dena den, nazioarteko erabakiak ere beharko dira, ezta?**

Nazioarteko erakunde indartsuak behar direla diote, eta  
egia da, beharrezkoak dira, baina estatu-mailako erakun-  
de indartsuak ere behar ditugu. Izan ere, nazioarteko era-  
kondeek ezin dute aginpiderik izan legitimatuta ez bada;  
adibidez, Kiotoko akordioek ez dute indarrik estatu  
batzuek ez dietelako laguntzen.

### **Beraz, ingurugiro-erronkei aurre egin ahal izateko elkarlana bultzatu behar da?**

Ingurugiro-erronkei aurre egiteko, gobernuetako eta  
nazioarteko erakundeek lana izango dute, batez ere nazio-  
artekoek, estatuak gero eta ahulagoak izango direlako.  
Etorkizunean ingurugiro-politikak ezin izango dira gaine-  
rako politketatik bereizi. Ingurugiroa nazioarteko bihurtu

## Nor da Thilo Bode?



B. KORTABARRIA

Nazioarteko Greenpeaceko zuzendaria da 1995eko irailetik. Kargu hori hartu aurretik Alemaniako Greenpeaceko zuzendaria izan zen, 1989. urtetik. Greenpeace nazioarteko erakunde ekologista da, ia 3.000.000 bazkide dituena. Greenpeacek hogeita hamahiru herrialdetan ditu egoitzak, eta 1.000 langile.

Greenpeaceko zuzendariak Soziologia eta Zientzia Politiketako ikasketak egin zituen Alemaniako Regensburg-eko Unibertsitatean; bertan doktoretza lortu zuen, 1975. urtean. Hiru urte geroago Alemaniako Berreraikitze eta Garapen bankura joan zen, proiektuen arloko zuzendaritzan lan egiteko. Afrikarekin eta Asiarekin egiten ziren elkarlan-proiektuak bere ardura ziren. 1981. urtean bere kabuz hasi zen lanean, nazioarteko aholkulari hainbat erakunde, gobernu eta enpresarekin.

Bavarian jaio zen eta Amsterdam-en bizi da gaur egun, Greenpeace erakundearen nazioarteko egoitza dagoen tokian.

da; beraz, eragina izan dezake gainerako guztian. Ingurugiro-arazoak ezin dira konpondu munduan bakea eta justizia lortzen ez badira, gizarteak harmoniarik ez badu ezin du ingurugiroa zaintzean pentsatu. Etorkizun hobea izango badugu, gure politikak aldatu egin behar ditugu.

### **Borondate politikoa erabakigarria ei da, eredu ekonomikoak aldatu behar ei dira... helburu horietatik gero eta gertuago gaude?**

Lehen esan bezala, ingurugiro-mugimenduek hasieran arazo zehatzei begiratzen zieten. Gaur hori gainditu dugu, eztabaida hori baino zabalagoa da, eta baliabideen erabilera hitz egiten ari gara. Zera gertatzen da, ideia horien guztien aurrean indar handiagoak daudela, presio-taldek gero eta handiagoak baitira. Benetan ikusten dugu borondatea egon daitekeela, baina indarrak ez, aurrean jartzen zaizkigun interes ekonomikoak handiak direlako.

**Indar handi horiei aurre egiteko lanean, ingurugiroaren aldeko taldeak nabarmetzen dira. Greenpeace horietako bat da, urteak pasa ahala nazioartean zer esan handia eta eragin zuzena duena. Indar parapolitiko izatea ere leporatu zaio Greenpeace erakundeari. Zer deritzozu horri?**

Nire ustez gobernu kanpoko erakundeek zeregin garrantzitsua izan dugu sistema demokratikoetan, gobernuak berez ez direlako presio-indarrei aurre egiteko gai. Horregatik existitzen dira. Guk eta gurea bezalako taldeek ezin dugu akats larririk egin, bestela joko kanpo geratuko ginateke eta. Horregatik esaten dut ez garela parapolitikoak, eta bai garrantzikoak. Gu gabe eta gurea bezalako talderik gabe ez dakit ingurugiro-eztabaida non legokeen, ez nintzateke esatera ausartuko.

### **Beste kritika bat ere egiten zaio Greenpeaceari, gaian soilik metodo zientifikoen edo zientzialarien bermea duenean sartzen dela.**

Zientziak bere buruari egiten dizkion galderak baino ez ditu erantzuten, eta batzuetan oso ikuspegi itxia izaten du. Gehienetan zientzialariak eztabaida osasun-arriskueta oinarritzen dute, baina guretzat garrantzia handiagoa dute nekazaritzak eta ingurugiroak. Guk geure ikuspegia dugu, eta beharrezkoa denean zientzialarien ideiak ere ematen ditugu.

### **Goazen jarraian gai zehatz batzuekin. Adibidez, puntu berdea, produktu berdeak, etab. Gero eta gehiago ikusten dira horrelakoak, baina badirudi gobernuak horretara mugatzen direla, hezkuntza gutxietsi egiten dela. Ez da hori nazioarteko engainuaren isla?**

Benoa, puntu berdearena elementu bakarra da, kontsumitzaileendako informazioaren barruan sar daitekeena. Produktu transgenikoei etiketa jartzearena ere ikuspegi



ARTXIBOKOA

Egungo teknologia ingurugiroa babesteko, eta ez suntsitzeko erabili beharko genuke.

horretatik ikus daiteke, birziklatzearena ere bai... ez dakit bidea hori den, baina kontua informazio ona eta gardena edukitzea da, bai produktuen kalitateari dagokionez eta bai produktuen produkzio-bideari dagokionez ere.

Hezkuntzaren gaiari dagokionez, guretzat ere erronka izan beharko litzateke, gizarteari ingurugiroa nola eta zergatik suntsitzen den erakutsi behar baitzaio. Hala ere, ingurugiro-hezkuntzarik eza kalteak egin ondorengo aitzakia modura ere erabili izan da. Lan hori beharrezkoa da, baina ez da guztia. Komunikabideek ere badute zer egina. Europan dugun suntsipena oro har txikiagoa da, baina non daude suntsipen horren irudiak, ozono-geruzarenak, berotze globalarenak... nola komunika ditzakegu?

**Hondakin nuklearrez hitz egiten denean, nazioarteko zientzialarien artean badago nolabaiteko adostasuna hondakin horiekin ezer ez egiteko; alegia, bildu eta gordetzeko, bihar edo etzi konponbidea aurkituko delakoan. Greenpeace ados dago horrekin?**

Industria nuklearrak hondakin nuklearrendako irtenbide teknologikoei buruzko eztabaidara eraman nahi gaitu, eta uste dut hori okerreko bidea dela. Lehenengo eskatzen duguna, eta behar duguna, politikarien eta industriaren aldetik energia nuklearra ez ekoizteko erabaki sendoa da. Hori erabaki eta gero hasi beharko ginatete pentsatzen hondakin nuklearrekin zer egin. Hala ere, hondakin nuklearren gaiak oraingoz ez du irtenbiderik, eta guk esaten dugu hori teknikoendako eta injineruendako gaia dela, beraien lana izan behar baita arazoari irtenbidea ematea,

hondakinak datozen belaunaldiei kalterik ez egiteko moduan gorde ahal izan daitezten. Dena den, badakigu berez gai korapilatsua izango dela.

*“gizarteari ingurugiroa nola eta zergatik suntsitzen den erakutsi behar zaio. Hala ere, ingurugiro-hezkuntzarik eza kalteak egin ondorengo aitzakia modura ere erabili izan da”.*

**Produktu transgenikoak lehenxeago zuk zeuk aipatu dituzu. Zergatik du Greenpeacek horrenbesteko grina produktu transgenikoen aurkako borrokan?**

Greenpeace printzipioz ez dago ingeniarietza genetikoaren aurka, baina bai nekazaritzako produktuetan teknologia horiek erabiltzearen aurka. Gure ustez genetikoki eraldatutako produktuak erabiltzean, gaur egungoa baino nekazaritza-ustiaketa basatiagoak bultzatzen ari dira. Gure alternatiba nekazaritza modernoa da, ekologikoa edo biologikoa, eta hor ez dago tokirik produktu transgenikoentzat.

Behin baino gehiagotan esan digute garapenaren aurka gaudela, eta hori ez da egia. Gu ez gaude garapenaren aurka; bai, ordea, teknologia oker erabiltzearen aurka. Greenpeace garapenaren alde dago, baldin eta garapenak gizartearen arazo errealei aurre egiten badie. Produktu transgenikoekin enpresa handien irabaziak handitzea besterik ez dute bilatzen, ez dute kontsumitzaileontzat benetako onurarik. Teknologiaren alde gaude puntako teknologia hori —adibidez— energia berriztagarriak bultzatzeko erabiltzen bada, baina puntako teknologia horren aurka gaude —adibidez— energia nuklearra lortzeko erabiltzen bada.

Azken 20-25 urteetan ingurugiroaren suntsipena oso gogorra izan da eta teknologiak horretan zer ikusi handia izan du. Beraz, esan behar dut teknologia ingurugiroa azkarrago kaltetzeko, kalteen abiada handitzeko alegia erabili dela. Baina galdera ez da teknologiak ingurugiroa suntsitzen lagundu duen edo ez, baizik eta zein helburutarako erabili izan den. Uste dut egin denaren alderantziko prozesua egin beharko genukeela, egungo teknologia ingurugiroa babesteko, eta ez suntsitzeko erabili beharko genuke. 